

## UDALAREN OSOKO BILKURA 1/09

### 2009ko URTARRILAREN 22AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTA

#### BERTARATUAK:

##### ALKATEA:

Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka

##### ZINEGOTZIAK:

Ainitze Etxaniz Iraola

Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga

Gregorio Zuaznabar Urkola

Alazne Ruiz Luluaga

Eider Garmendia Arrieta

Fidel Azpiroz Arrillaga

Jose Ignacio Otermin Garmendia

##### IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoetako Udaletxean, 2009ko urtarrilaren 22ko hamalauak eta hogeita hamar direnean, aurrez horretarako hitzordua jakinarazi ostean, Udalbatza bildu da Ezohiko Bilkuran Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka alkatearen lehendakaritzapean eta bazterrean adierazten diren zinegotziak bertan direla. Ez da etorri Joseba Agirrezabala eta ez da desenkusatu; eta ni, Nekane Agirresarobe Etxeberria Idazkari gisa jardunez.

#### 1. ANOETAKO AUDITORIOA, ERABILERA ANITZETAKO KULTUR EKIPAMENDUAREN EGITASMOA ONESTEA.

Ikusirik "ENTZUNARETOA ANOETAN". Erabilera anitzeko kultur ekipamendua, Mikel Puerta Darceles, Héctor Espin Larreta, Eñaut Muñoz Artola eta Roman Egaña Salaberria arkitekto taldeak idatzitako proiektua,

Ikusirik Obra eta Hirigintzako batzordearen irizpena, 2009ko urtarrilaren 20koa,

Ikusirik Udalaren AOT txostena,

Alkateak hitza hartu du eta esan Estatuko Tokiko Inbertsio Funtsen kontura finantzatuak izan daitezkeen obrak aztertu ostean, aipaturiko proiektua aurkeztea erabaki dela; eta horri buruzko azalpen labur bat eman du.

Ondoren, Jose Ignacio Otermin zinegotziak hartu du hitza esateko bere ustez herrian badaudela kontuan hartu beharreko bestelako lehentasunak, honako hauek, besteak beste: musika-eskola, ur-ekarria baserrietara, udalaren lokalen egokitzapena, Errota eraikinaren egokitzapena, lurrazpiko aparkalekuak herriko plazan, eguneko egoitza, ur-hoditerien konponketa etab.

Eztabaida labur baten ostean, Alkate-Presidenteak Obra eta Hirigintzako Batzordearen irizpena bozkatzea erabaki du, eta hauek izan dira jasotako emaitzak:

Aldeko botoak: **6** (Pedro M<sup>a</sup> Peñagarikano Labaka, Ainitze Etxaniz Iraola, Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga, Gregorio Zuaznabar Urkola, Alazne Ruiz Luluaga, Eider Garmendia Arrieta.

Kontrako botoak: **2** (Fidel Azpiroz Arrillaga, Jose Ignacio Otermin Garmendia

Abstentzioak: **0**

Jasotako botoen arabera, honako erabakia hartu da:

"Ikusirik 9/2008 Errege Dekretu-Legea, azaroaren 28koa, zeinaren bitartez sortzen diren Estatuko Tokiko Inbertsio Funtzen, eta Ekonomia eta Lana Dinamizatzeko Funtz Berezia, eta hauen finantzazioari aurre egiteko aparteko kredituak onartzen direla,

Ikusirik "ENTZUNARETOA ANOETAN". Erabilera anitzeko kultur ekipamendua, Mikel Puerta Darceles, Héktor Espin Larreta, Eñaut Muñoa Artola eta Roman Egaña Salaberria arkitekto taldeak idatzitako proiektua,

Ikusirik, Obra eta Hirigintzako batzordearen irizpena, 2009ko urtarrilaren 20koa,

Erabaki da:

Lehenengo.- "ENTZUNARETOA ANOETAN", Mikel Puerta Darceles, Héktor Espin Larreta, Eñaut Muñoa Artola eta Roman Egaña Salaberria arkitekto taldeak idatzitako proiektua onartzea, honako baldintza hauekin:

\* Gauzatzeko aurrekontua: 313.631,86 euro (BEZa barne)

\* Proiektuaren gauzatze-lanetan okupatuko diren langileen aurreikuspena: 12 langile.

\* Proiektua gauzatzeko epea: 6 hilabete, 2009ko apirila eta urria bitartean.

Bigarren.- Aipaturiko proiektuaren finantzazioa eskatu Estatuko Tokiko Inbertsio Funtzaren kontura.

Eta besterik gabe, Alkateak bilkura amaitutzat eman du hamabostak eta hamar minutu direnean, eta nik, Idazkari naizen honek, hala ziurtatzen dut.